

ENPLEGU PLANA

ARETXABALETAKO UDALA

2011- 2015 AGINTALDIA



Aretxabaletako
Udala

AURKIBIDEA

1. LANGABEZIAREN BILAKAERA ARETXABALETAN ETA DEBAGOIENEAN

1.1. DEBAGOIENA

1.2. ARETXABALETA

1.3. DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA - GARAPEN EKONOMIKORAKO
AGENTZIA

2. EGINKIZUN OROKORRAK

3. ENPLEGUA ETA GARAPEN SAILAREN EGITEKO NAGUSIAK 2011-2015 AGINTALDIRAKO

3.1. INFORMAZIO ETA ORIENTAZIO ZERBITZUA ESKAINI

3.2. ARETXABALETAKO UDALAREN WEBGUNEAN ENPLEGU ARLOKO ATALA
DINAMIZATU

3.3. ARETXABALETAKO LANGABETUEN UDAL DATU BASEA EGUNERATU

3.4. ARETXABALETAKO LANGABETUEN UDAL DATU BASEA INDARTU ETA
EZAGUTZERA EMAN

3.5. LANERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK ANTOLATU

3.6. AUTOENPLEGUA

3.7. HERRIKO MERKATARIEI LAGUNTZA

3.8. ENPRESEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA PROGRAMAK

3.9. HERRIKO HAINBAT LANETARAKO LANGABETUEN KONTRATAZIO ZUZENA

4. ENPLEGU PLANA ETA SUSTAPENERAKO AURREKONTUA

5. AURREKONTUA ZENBAKITAN

6. 2012 eta 2013ko MEMORIA

1. LANGABEZIAREN BILAKAERA ARETXABALETAN ETA DEBAGOIENEAN

1.1. DEBAGOIENA

Krisia hasi aurretik, 2007ko irailean 1.585 langabetu zeuden Debagoiengan. Urte bete beranduago, krisiaren eraginez izugarrizko gorakada izan zuen langabetu kopuruak, eta gaur egun langabezian dauden pertsonen kopurua bikoiztera iritsi da 3.250 langabekurekin.

Orokorrean Debagoiengan langabetu kopurua bikoiztu egin da eta ez dirudi beheranzko joera izango duenik epe laburrean.

Langabetuen perfila aztertuz, langabetu gehiago dago emakumeen artean gizonen artean baino Debagoiengan. Izan ere, zerbitzu alorrean emakumeei kontratu gehiago egiten bazaizkie ere, kontratu horiek normalean motzagoak eta orduetan txikiagoak izaten dira.

Adinaren arabera 80. Hamarkadan izandako krisiarekin alderatuz, orduan gazteak ziren, adin taldeen artean, langabeziak gogorren astintzen zituenak, oraingoan, 45 urtetik gorakoak dira. Langabeziak gogor astintzen duen beste kolektibo bat etorkinak dira.

Ikasketa maila kontuan izanik, langabetuen %60ak baino gehiagok oinarrizko ikasketak dauzkate soilik eta langabetuen %37a iraupen luzekoa da, urte bete baino gehiago daramatenak langabezian. Zenbait kasutan langabezi egoera kroniko bihurtu da.

Kontratuak aztertuz, aldi baterako kontratuen tasa batz besteko %95ekoa da, lan merkatuaren prekaritatearen seinale.

Enpresen biziraupena aztertuz Debagoiengan 2006an 388 enpresa berri sortu ziren eta 1.013 lanpostu; 5 urte beranduago, 2011n sortu ziren enpresa horietatik 199k jarraitzen zuten bizirik, hau da, %51,29ak.



Sektore gehienetan enpresa kopurua jaitsi egin da, horietatik gehienak eraikuntzarekin lotuta zeudenak. Azken 3 urteetako datuak hartuz, bai Gipuzkoa mailan bai gure bailaran, enpresa gehiago itxi dira ireki baino.

Iturria: Eustat


LANBIDEAK ESKARIA / ESKAINTZA	GEHIEN ESKATZEN DIREN LANBIDEAK	GEHIEN KONTRATATU DIREN LANBIDEAK
INDUSTRIAKO PEOIAK	X	X
DENDA ETA BILTEGIETAKO SALTZAILEAK	X	X
ADMINISTRARIAK	X	
GARBITZAILEAK	X	X
ZERBITZARIAK	X	X
IGELTSEROAK	X	
ZUZENDARITZA ADMINISTRATIBOKO LAGUNTZAILEAK	X	
MAKINA ERREMINTAKO LANGILEAK	X	
OSPITALEKO ERIZAIN LAGUNTZAILEAK	X	X
ERAIKUNTZAKO PEOIAK	X	
SOLDADOREAK	X	
BILTEGIETAKO OPERADOREAK	X	
(ETXEZ ETXEKO LANGILEAK)ETXEETAKO ZAINKETA PERTSONALEKO LANGILEAK	X	
BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK (LANBIDE HEZIKETA SALBU)	X	
UMEEN ZAINZAILEAK		X
KUTXAZAINAK (BANKUAK SALBU)		X

Iturria: Lanbide

1.2. ARETXABALETA

Aretxabaletak, 6.995 biztanle ditu eta ia %10eko langabezia tasa.

2011 eta 2012 urteko langabezia tasaren bilakaera ikusirik, langabetu kopuruaren joera goranzkoa izan dela ikus dezakegu. 2011ko azken hileko langabezia kopurua eta 2012koa alderatuz, 60 langabetu gehiago ditugu abenduan jasotako azken datuen arabera.



Aretxabaletan ere langabetu kopurua ia bikoiztu egin da azken bost urteotan krisiaren eraginez eta ez du beheranzko joerarik erakusten, epe laburrean behintzat .

Euskal gizarteak eta Aretxabaletak bizi duen egoera beltz, eta kezkarri honi aurre egiteko, Aretxabaletako Udalak, egoera leuntzen eta hobetzen laguntzeko txoke-plan bat jarri zuen abian orain dela pare bat urte eta lan teknikari bat kontratatu zuen Lanbidek eskaintzen zuen diru laguntzaz baliatuz. Orain diru laguntza desagertu arren udalak arazoari aurre egin nahian lan teknikaria egun erdiz izaten jarraitzen du kostua bere gain hartuz.

Zergatia: Enpresak ixtearen ondorioz, lan postuak galdu egin dira eta lan eskaintza ere murriztu egin da, eta ondorioz langabezia-tasak gora egin du nabarmen. Hori dela eta, egoera larriak bultzatuta gero eta herritar gehiago hurbiltzen da udaletxera laguntza eske, bai gizarte zerbitzuetara eta baita enplegu bulegora ere.

➤ Aurrera eramandako Ekintzak:

- Lana bilatzen laguntzeko orientazio zerbitzua eskaini
- Auto-enplegua bultzatu
- Kontratazio berriak sustatu
- Diru laguntzak eman
- Herriko merkatarietara lagundu
- Krisiaren eragina gehien jasaten dutenei lagundu
- Langabezia prestazioa jasotzen ez dutenei edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenei lagundu
- Gizarte-bazterketa egoeran edo egoera horretan erortzeko arriskuan dauden pertsonak aintzat hartu
- Etab.

Ezinbestekotzat jotzen dugu batez ere egungo krisi egoera dela eta, udalak bere konpromisoarekin jarraitzea eta enplegu plan bat izan eta sustatzea: enplegurako orientazio eta formazioa eskaini, lan-merkatuan bitartekaritza lanak egin, auto-enplegua bultzatu, diru laguntzak bideratu, etab.

Hori dela eta Udaletxeko Enplegu eta Garapen Sailetik inguruko eragileekin harremanak lantzen eta baliabideak aztertzen egon gara. Bilerak izan ditugu bailarako hainbat herrietako lan teknikariek, mankomunitatean, lanbidekoekin, etab, informazioa eta datuak biltzeko helburuarekin.

Udaleko enplegu planaren erreferentzia markoa Mankomunitateak egin duen azterketa eta diagnostiko sozio-ekonomikoan eta enplegu planean dago oinarrituta (ikus eranskinak) eta ondorioz lotuta dago Mankomunitateak bideratzen ari den planarekin. Mankomunitateak enplegu plana garatzeko ondorengo parte-hartzaileek osatutako foro bat elkartu zuen:

- Mankomunitatea-Udalak
- Unibertsitatea MU-UNED
- Enpresariak ADEGI
- Lanbide Heziketa HETEL-IKASLAN
- Bazterketa Arriskua GUREAK
- Ekintzaile-tasuna SAIOLAN
- Ikerketa MIK
- Merkatariak MERKATARI TXIKIEN ELKARTEA
- Nekazaritza DEBAGARAIA LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua

Diru laguntzen kasuan, jakina da urtetik urtera **murrizketak** egon direla, adibidez autonomoentzako zeuden laguntzak, etab. Gainera, lanbidek zituen zentro laguntzaileak 2012 urtean kendu zituen, hauen bitartez eskaintzen zuen orientazio zerbitzua etenda (Arrasateko udalean zuen orientazio zerbitzua, Aretxabaletako institutuan zegoena, Mankomunitatekoa, Bergarako Miguel Altuna Institutukoa, etab). *2013ko urrian jarri zituzten berriz ere martxan zerbitzu hauek guztiak diru-laguntza jaso ondoren, eta hala jarraitzen dute diru-laguntza agortu arte.*

Langabetuek behar duten lehenengo zerbitzua orientaziokoa izaten da, hau da eskualdeko lan merkatuari buruzko informazio zuzena jaso eta horretan txertatzeko jarraitu behar dituzten bideak zeintzuk diren ezagutzeko.

Esan beharra dago **murrizketek** eta zerbitzu honen etenak ez duela egoera hobetzen laguntzen, eta laguntza gehien behar den garaian gaudela orain. Diru laguntzak jasotzea eta orientazio zerbitzua eskaintzea ezinbestekoa baitira langabezi egoeran aurkitzen diren pertsonen laguntzeko.

Orain, gure bailaran orientazio zerbitzua Arrasateko Lanbideko bulego zentralean aurkitzen da soilik (bertara gerturatzeko diren pertsonak gero eta gehiago dira eta behar bezalako arreta ezin emanda dabilta) eta baita mantentzea erabaki duten udaletan ere (Bergarako udaleko kasuan eta Aretxabaletako udalak eskaintzen jarraitzen duen orientazio zerbitzua lanbideko zentro laguntzaile izan gabe). *2013ko urrian jarri zituzten berriz ere martxan zerbitzu hauek guztiak diru-laguntza jaso ondoren, eta hala jarraitzen dute diru-laguntza agortu arte.*

Aretxabaletako Udaletxeko Enplegu Siletik eskaintzen den zerbitzuetako bat **Orientazio zerbitzua** da eta zerbitzu honek eskaintzen duena besteak beste honako hau da:

Enplegu eta auto-enplegurako orientazio eta informazio zerbitzu pertsonalizatua, lanerako prestakuntza ikastaroen antolaketa, diru laguntzak, etab. Era berean, laneratzea errazteko, enprekin eta entitate nahiz erakunde publikoekin harremanetan jartzeko aukera ematen du. Formazio aldetik dagoen eskaintzaren berri ematen du, eta Curriculum vitae, aurkezpen gutunak, auto-hautagaitza, hautatzeko elkarrizketa, etab. nola egin erakusten du.

Lan bitartekaritza eskaintzea ere aurreikusten du eta horretarako beharrezkoa ikusten du udaleko departamentuen eta enplegu zerbitzuaren arteko koordinazioa lantzea, batez ere, gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuaren artekoa.

1.3. DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA – GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Eskualdeko udalerrriak Debagoieneko Mankomunitatean elkartzen dira zenbait zerbitzu era bateratuan emateko. Zerbitzu hauen artean Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia azpimarratu dezakegu, non arlo desberdinetako programak gauzatzen diren. Aretxabaletako Udalak Agentzian duen ordezkari politikoa Alkatea da.

Garapen Agentziak ez du pertsonalitate juridiko propioirik, hau da, Debagoieneko Mankomunitateko zerbitzu bat da eta Euskadiko Garapen Agentzien Elkarteko kidea da.

Duela gutxi arte lehentasunezkoak izan diren programa batzuek, hau da, prestakuntzak eta orientazioak, garrantzia galtzen joan dira eta gaur egun, Agentziak beste eginkizun berri batzuei eman die lehentasuna, batez ere, eskualdeko enpresa txiki eta ertainekin eta beste eragileekin kolaborazioa eta proiektu bateratuak bultzatzeari.

Garapen Agentziak kudeatzen dituen programak ikus eranskinean.

PRESTAKUNTZA ARLOAN:

- Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa

Agentziak, sortu zenetik (1.988) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak babestutako, garai bateko “Lanbide Hastapena” gaur egun “Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa” dena antolatu izan du. 16-18 urte bitarteko DBHko titulu gabeko gazte langabetuei zuzendutakoa da eta oinarrizko lanbide heziketa eskaintzen du tailer ezberdinetan. Bertan parte hartzen duten gazteei lanerako prestakuntza ematea eta DBHko ikasketak burutzen laguntzea da programaren helburu nagusia. Programak bi urteko iraupena du eta bigarren urtean ikasleek hiru hilabetetan praktikak egiten dituzte enpresetan.

- Eskolatze Osagarria

Eskolatze Osagarriko Programak heziketa-prozesuan laguntza behar duten ikasleentzat sortu ziren. Mankomunitateak 2007-08 ikasturtetik hasita, hiru ikasturtetan antolatu izan ditu ikastaroak. Egitarau honetan parte hartzen duten ikasleak eskualdeko bigarren hezkuntzako zentroetan matrikulatuta dauden 14 eta 16 urte bitarteko ikasleak dira, eskolan ikasketak jarraitzeko arazo larriak dituztenak.

2. EGINKIZUN OROKORRAK

Enplegu arloan, informazioa eta datuak bildu eta egoeraren diagnostia egin ondoren aurrera begira egiteko hauek ikusten ditugu:

- Enplegu bulegoa herritarrengana hurbiltzea, zabaltzea eta ezagutzera ematea.
- Langabetuei, enplegurako orientazioa eskaintzea eta, aholkularitza eta laguntza ematea beren lan merkaturatzea errazteko.

- Formazioa eskaintzea langabetuen kualifikazio profesionala hobetzeko eta laneko prestakuntzarekin zerikusia duten ekintzen antolaketa bultzatzea.
- Lan-merkatuan bitartekaritza egitea.
- Herriko eta inguruko lan merkatuaren informazio eguneratua jaso eta eskaintzea.
- Negozio aukerak detektatzea eta horien berri ematea auto-enplegua sustatzeko.
- Auto-enplegua bultzatzea.
- Diru laguntzak ematea auto-enplegua sustatzeko eta kontratazio berrientzako.
- Elkarlana bultzatzea: Mankomunitateko Garapen Agentziarekin, Lanbiderekin, Gizarte Zerbitzuekin, Lanbide Eskolarekin...
- Datozen hilabetetarako ildo nagusiak eta estrategiak definitzen joatea.
- Programa eta aktibitateen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

3. ENPLEGUA ETA GARAPEN SAILAREN EGITEKO NAGUSIAK 2011-2015 AGINTALDIRAKO

- Hona hemen 2011-2015 agintaldian Enplegu Planean finkatu eta aurreikusten ditugun helburu eta eginkizunak eta martxan jarri beharreko ekintzak. Garatu ahal izateko eman beharreko pausuak ondorengoak dira:

3.1. INFORMAZIO ETA ORIENTAZIO ZERBITZUA ESKAINI

- Enplegu bulegoa herritarrengana hurbildu, zabaldu eta ezagutzera eman.
- Zerbitzu publikoen orientazio zerbitzuei buruzko informazioa (Lanbide, Sepe) eman.
- Lana bilatzeko teknikak landu.
- Curriculuma prestatzen lagundu.
- Herriko eta inguruko lan merkatuaren informazio eguneratua jaso eta eskaini.

- Lan Poltsan apuntatuta dauden pertsoneri astero bidali lan eskaintzen eta ikastaroen inguruko informazioa.
- Herriko eta eskualdeko prestakuntza aukeren inguruko informazioa eman.
- Auto-enplegua bultzatu.
- Auto-enplegua bultzatzeko diru laguntza eskaini eta kudeatu.
- Kontratazio berrien diru laguntza eskaini eta kudeatu.
- ETTei buruzko informazioa eskaini (Adecco, Unique, Randstad...).
- Lan-merkatuan bitartekaritza lanak egin.
- Ahal den guztian lagundu eta bide berriak jorratu.

3.2. ARETXABALETAKO UDALEKO WEBGUNEAN ENPLEGU ARLOKO ATALA DINAMIZATU

- 2011-2015 agintaldiko helburuen artean enpleguaren arloko atala dinamizatzea aurreikusten da.

Lehendabizi udaleko web gunean enplegu arloko atala berrantolatu eta eguneratu beharra dago.

- Udaleko programa guztien informazioa eta albisteak eskainiz.
- Udaleko ikastaroen inguruko informazioa jarritz.
- Lan eskaintzak zintzilikatuz.
- Orokorrean, Enpleguari buruz egon litezkeen ohar interesgarriak, deialdiak, hitzaldiak, prestakuntza programak, laguntzak (kontratazioa/autoenplegua/e.a.) bertan ezarriz.

3.3. ARETXABALETAKO LANGABETUEN UDAL DATU BASEA EGUNERATU

- Udal datu basea sortuta dago. Hala ere, ondorengo helburu orokorrak zehazten ditugu 2011-2015erako:
 - Lehendabizi datu basea eguneratu.
 - Bertako erabiltzaile askok hilabete luzeak daramatzatenez bertan apuntatuta eta bakoitzaren inguruko informazioa eguneratu.
 - Bertako erabiltzaileak diren pertsonen perfilak eta beharrianak ezagutu, sailkatu eta hauen beharrei egokitutako ikastaroak antolatzen eta eskaintzen saiatu.
 - Pertsonak eta egoerak ezagutu, kolektiboen ezaugarriak kontutan eduki, diagnostikoa egin eta laneratze planak aurrera eramateko.
 - Informazioa pertsonalizatu: bakoitzari bidaltzeko, beraiekin harreman zuzena edukitzeko, eta jasotako lan eskaintzak bideratzeko.

3.4. ARE TXABALETAKO LANGABETUEN UDAL DATU BASEA INDARTU ETA EZAGUTZERA EMAN

- Besteak beste, oso garrantzitsua litzateke:
 - Datu basea modu zabalago baten ezagutzera eman, herrian langabezian dauden herritar guztiek udalak eskaintzen duen zerbitzu honen berri izan eta erabil dezaten.
 - Datu basea enpresen artean ere ezagutzera eman, edozein momentutan pertsonaren bat kontratatu nahi balute, horretarako bide posible bezala ikus dezaten.
 - Enpresetako Giza Baliabideetako arduradunekin kontaktu zuzenago bat izatea beharrezkoa ikusten da.

3.5. LANERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK ANTOLATU

- Udalak dituen baliabideen arabera ikastaroak antolatu.
- Enplegu bulegora orientazio eske gerturatzeko diren langabetuek eskatzen dituzten ikastaroak aztertuz.
- Lan-merkatuaren norabidea ikusi, langile kualifikatuaren beharra duten merkatu-nitxo edo sektoreak identifikatzeko helburuz.
- Herrian dauden baliabideen bidez (prestakuntza zentroak), langileen birziklapena sustatu, beste entitate batzuen finantziarioa eta laguntza bilatuz.
- Herritar desberdinek eskaini ditzaketen ezagupenak aprobetxatuta ikastaroak antolatu.
- Aretxabaletako Lanbide Eskolarekin ikastaroak hitzartu (industria arlokoak).
- Debagoieneko Mankomunitatearekin batera antolatutako ikastaroak.
- Herriko enpresa batzuen finantziario partaidetza bultzatu.

3.6. AUTOENPLEGUA

- Orain arteko bidean jarraitu:
 - Saio informatiboak antolatu auto-enpleguarekin zerikusia duten gaien inguruan (belaunaldiaren errelebo faltaren aurrean negozio txikiak hartzeko aukeraren inguruan adibidez...)
 - Auto-enpleguari buruzko prestakuntza: Mankomunitatearekin batera ikastaroak antolatu.
 - Auto-enpleguari buruzko prestakuntza, adibidez: enpresa txikien gestioa.

3.7. HERRIKO MERKATARIEI LAGUNTZA

- Aretxartekin Hitzarmena sinatzea espero da antolatzen dituzten ekintzen finantzaketan laguntzeko eta tokiko komertzioa indartzeko.
- 2014a laugarren urtea izango da Udalak Hitzarmen hau sinatzen duela Aretxarterekin.
- Merkatariei zuzendutako ikastaroren bat antolatzeko asmoa dago.
- Momentu oro iturri desberdinetatik argitaratzen diren diru-laguntzei buruzko informazioa eman tokiko komertzioak sustatu, indartu, eta modernizatzeko helburuarekin (PERCO).

3.8. ENPRESEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA PROGRAMAK

- Udaleko Enplegu Saileko diru laguntza deialdien aurrekontuak onartu ondoren argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Ondoren eskaerak jaso, aztertu eta jarraipena egingo zaie. Zehazki:
 - Enpresa ekimen berriei zuzendutako laguntzena.
 - Kontratazio berriei zuzendutako laguntzena.
- Enpresa ekimen berriei zuzendutako diru laguntza 2010. urtean jarri zen martxan. Aurten ere diru laguntza hau ematea beharrezkoa ikusten da eta ahaleginak egingo dira jasotzen diren diru laguntza eskaera guztiei erantzuteko. Helburu hori betetzeko, Udal Aurrekontuetan 20.000 euro onartu ziren 2013ko ekitaldirako eta beste hainbeste onartu da 2014rako.
- Halaber, Udalak 2010ean, herriko pertsonak kontratatzen zituzten enpresei zuzendutako diru laguntzak jarri zituen martxan. Honi dagokionez, bide zuzenagoak eta zehatzagoak bilatu behar ditugu enpresen artean diru laguntza hauek

- ezagutzera emateko. Helburu hau betetzeko, Udal Aurrekontuetan 10.000 euro onartu ziren 2013ko ekitaldirako eta beste hainbeste onartu da 2014rako.
- laz emandako diru-laguntzen jarraipena egitea ere beharrezkoa da urte bukaeran.
- Enpresa ekimen berriak Aretxabaletara erakartzeko lur eta azpiegituren inguruko informazioa ahalbidetu, interesa erakusten duten enpresei.
- Webgunean BOE, BOPV, BOG, etab.etan publikatzen diren laguntza deialdi desberdinen berri izan eta deialdi hauen berri eman inguruko enpresei (zerbitzu honen berri eman enpresei).

3.9. HERRIKO HAINBAT LANETARAKO LANGABETUEN KONTRATAZIO ZUZENA

- Herriko mantentze lanetarako udaberri eta udazken aldera brigadak izan ditzakeen beharrak zehaztu eta peoiak kontratatuko dira 2015arte (2012an sortutako lan poltsatik).
- 2012ko azken hilabeteetan 3 lan poltsa ezberdin sortu ziren, eta horietako bitatik hainbat langile kontratatu ziren. Pertsona horiek 2011-2015 agintaldia bukatu arte lanean jarraituko dutela aurreikusten da.
- Aretxabaletako langabetuen perfila ikusita gero, posibleak diren lan ezberdinak finkatuko dira.
- Finantziarioa: udalaren kontura izango da eta beste finantzazio iturri batzuk izateko ahalegina egingo da.
- Finantziario iturri berriak bilatuko dira.

LABURTUZ

- **Enplegu planak hiru ardatz nagusi ditu**, eta horietako bat, hain zuzen ere, kontratazioa da. Iazko azaroan udalak 6 pertsona kontratatu zituen, horretarako lan poltsa bi zabalduz. Urte berri honi eta datorrenari begira, helburua pertsona hauen kontratua mantentzea da. Edonola ere, esan beharra dago udala austeritate plan batean murgildurik dagoela eta kontratu horiek aldi baterako direla, eta zenbait kasutan egun erdirako.

2013an Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru-laguntzari esker 3 langabetu kontratatu ziren peoi lanetarako (batez ere mantentze lanak egiteko).

2014an Foru Aldundiak langabetuak kontratatzeke deialdia argitaratuko du, eta udalak bere eskaera aurkeztuko du, gutxienez, beste bi langabetu kontratatzeke.

Honetaz gain, udalak beste bi lanpostu berri sortzeko asmoa du: partaidetzarako teknikaria eta berdintasun teknikaria.

Azkenik, Lanbideren bitartez beste hiru langabetu kontratatzea aurreikusten da.

- **Bigarren ardatza** orientazioa eta formazioa izango dira: langabeendako ikastaroak, Mankomunitatearekin elkarlanean, etab. Hemen ere, baldintza nagusia langabea izatea izango da. Beharbada, beste baldintza batzuk ere ezarriko dira. Beti ere pertsona horiei lanerako sarrera errazteko helburuarekin. Kontuan hartuko da daukaten ikasketa maila eta lan-merkatuak eskatzen duena. Inguruko ikastetxeekin batera egingo dugu: Aretxabaletako Lanbide Eskolarekin, Aretxabaletako Arizmendi ikastolarekin, etab.
- **Hirugarren ardatza** ekintzaile izaeraren ingurukoa eta herriko komertzioak indartzeko ekintzak izango dira: Enpresa-ekimenak irteten badira, jende hori prestatzeko jardunaldiak antolatu daitezke: enpresa mundua, enpresaren

kudeaketa eta beste arlo batzuk ezagutarazteko; hau da, ideiak sortzen badira, erraztasunak emateko.

4. ENPLEGU PLANA ETA SUSTAPENERAKO AURREKONTUA

- **ENPRESA EKIMEN BERRIEI ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK:**

Diru laguntza honen helburua Aretxabaletan martxan jartzen diren enpresa ekimen berrien sorrerarako diru laguntzak bideratzea da. 2014an, 2013ko urtarrilean Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zen kopuru berbera erabiliko da:

→ AURREKONTUA: 20.000€

- **KONTRATAZIO BERRIEI ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK:**

Diru laguntza honen helburua Aretxabaletan jarduera duten enpresei, egindako kontratazio berriengatik diru laguntzak bideratzea da. Horretarako, 2014ko aurrekontuetan iazko kopuru berbera erabiltzea aurreikusita dago.

Laguntza honekin, Udalak herrian lanpostu berrien sorrera eta mantentzea bultzatu nahi ditu eta zailtasun handienetan dauden herritarren laneratze prozesuan lagundu, horretarako pizgarriak eskainiz bertako enpresei, herritarrak kontratatzeko.

→ AURREKONTUA: 10.000€

- ENPLEGUA SUSTATZEKO KONTRATAZIOAK:

2014rako udalak bere aurrekontuetan, iaz egin zuen bezala, beste diru kopuru bat gordetzea erabaki du langabetuak kontratatzeke asmoz.

→ AURREKONTUA: 21.422,20€ (gizarte segurantzaren kontuan izan gabe).

- AUTO ENPLEGUA ETA LANERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK:

Udalak dituen baliabideen arabera ikastaroak antolatzea espero dugu..

→ AURREKONTUA: 15.490€

→ **GUZTIRA: 66.912,20€**

	AURREIKUSPENA
Enpresei Zuzendutako Diru Laguntzak:	30.000€
▪ Kapital Diru Laguntza Enpresa Ekimena	20.000 €
▪ Diru Laguntza Enpresa Ekimenetarako	10.000 €
Enplegua Sustatzeko Kontratazioak	21.422,20€
Auto enplegua eta Lanerako Prestakuntza Ikastaroak	15.490€
GUZTIRA	66.912,20€

5.1. 2013KO AURREKONTUA ZENBAKITAN

IZENA	PARTIDA ZENBAKIA	IRAUPENA	JARDUNALDIA	KREDITUA 2013	G. SEGURANTZA	GUZTIRA
Kontratazio Zuzenak	0701.131.121.00.01				0701.160.121.00.01	
Peoiak	2	6 hilabete	osoa	25.288,12 €	8.281,88 €	33.570,00 €
Hirigintzako teknikaria (aparejadorea)	1	6 hilabete	osoa	17.964,57 €	5.741,82 €	23.706,39 €
Hirigintzako teknikaria (aparejadorea)	1	3 hilabete	erdia	4.487,45 €	1.435,47 €	5.922,92 €
Lan teknikaria	1	urte osoa	erdia	22.517,46 €	7.453,32 €	29.970,78 €
Hirigintzako Administraria	1	urte osoa	erdia	14.498,54 €	4.799,04 €	19.297,58 €
Kontratazio Zuzenak (ARKUPE)	0701.131.451.10.01				0701.160.451.10.01	
Harreragilea	1	urte osoa	osoa	26.122,46 €	8.385,36 €	34.507,82 €
Harreragilea	1	urte osoa	erdia	13.061,30 €	4.323,24 €	17.384,54 €
Harreragilea	1	urte osoa	erdia	13.061,30 €	4.323,24 €	17.384,54 €
Kontratazio Zuzenak (LIBURUTEGIA)	0701.131.451.30.01				0701.160.451.30.01	
Liburutegiko laguntzailea	1	urte osoa	erdia	14.498,54 €	4.799,04 €	19.297,58 €
Liburutegiko laguntzailea	1	urte osoa	erdia	14.498,54 €	4.799,04 €	19.297,58 €
GUZTIRA KONTRATAZIO ZUZENAK	11					220.339,73 €
Diru Laguntza Arrunta Enpresa Ekimenetarako	0102.471.322.00.01					
GUZTIRA						10.000,00 €
Kapital Diru Laguntza Enpresa Ekimenetarako	0102.771.322.00.01					
GUZTIRA						20.000,00 €
Enplegua Sustatzeko Kontratazioak	0701.131.322.00.01				0701.160.322.00.01	
GUZTIRA				19.688,14 €	6.447,87 €	26.136,01 €
Autoenplegua, Lanerako Prestakuntza Ikastaroak	0701.227.322.00.07					
GUZTIRA						30.000,00 €
Garapen Ekonomikoa Eskualde Agentzia	0102.227.322.00.11					
Hilero eginiko ordainketak Mankomunitateari						24.301,11 €
Debagoieneko Mankomunitateari Kapital Trasferentzia	0701.721.322.00.11					
Inbertsioen Finantzaketa						654,38 €
Merkatariei Diru Laguntza	0302.471.751.00.01					
Aretxarteri diru laguntza						3.600,00 €
Merkataritza Sustapena	0302.226.751.00.06					
GUZTIRA						6.500,00 €
GUZTIRA						121.191,50 €

5.2 2014KO AURREKONTUA ZENBAKITAN

IZENA	PARTIDA ZENBAKIA	IRAUPENA	JARDUNALDIA	KREDITUA 2014	G. SEGURANTZA	GUZTIRA
Kontratazio Zuzenak	0701.131.121.00.01				0701.160.121.00.01	
Peoiak	3	urtarriletik- apirilera	osoa	18.730,00 €	6.101,00 €	24.831,00 €
Peoiak	2	5 hilabete	osoa	21.740,10 €	7.119,90 €	28.860,00 €
Hirigintzako teknikaria	1	urte osoa	osoa	35.064,54 €	11.483,64 €	46.548,18 €
Lan teknikaria	1	urte osoa	erdia	22.517,46 €	7.453,32 €	29.970,78 €
Hirigintzako Administraria	1	urte osoa	erdia	14.498,54 €	4.799,04 €	19.297,58 €
Kontratazio Zuzenak (ARKUPE)	0701.131.451.10.01				0701.160.451.10.01	
Harreragilea	1	urte osoa	osoa	26.122,46 €	8.385,36 €	34.507,82 €
Harreragilea	2	urte osoa	erdia	26.122,00 €	8.646,00 €	34.768,00 €
Mantenimentuko langilea	1	urte osoa	erdia	13.061,30 €	4.323,24 €	17.384,54 €
Kontratazio Zuzenak (LIBURUTEGIA)	0701.131.451.30.01				0701.160.451.30.01	
Liburutegiko laguntzailea	2	urte osoa	erdia	28.997,00 €	9.598,00 €	38.595,00 €
Kontratazio Zuzenak	0701.131.111.00.01				0701.160.111.00.01	
Partaidetzarako teknikaria	1	11 hilabete	herena	10.714,17 €	3.546,41 €	14.260,58 €
Kontratazio Zuzenak	0701.131.313.90.01				0701.160.313.90.01	
Berdintasun teknikaria	1	8 hilabete	erdia	11.696,58 €	3.868,80 €	15.565,38 €
GUZTIRA KONTRATAZIO ZUZENAK	16					304.588,86 €
Diru Laguntza Arrunta Enpresa Ekimenetarako	0102.471.322.00.01					
GUZTIRA						10.000,00 €
Kapital Diru Laguntza Enpresa Ekimenetarako	0102.771.322.00.01					
GUZTIRA						20.000,00 €
Enplegua Sustatzeko Kontratazioak	0701.131.322.00.01				0701.160.322.00.01	
GUZTIRA				21.422,20 €	7.015,77 €	28.437,97 €

IZENA	PARTIDA ZENBAKIA	IRAUPENA	JARDUNALDIA	KREDITUA 2014	G. SEGURANTZA	GUZTIRA
Autoenplegua, Lanerako Prest. Ikastaroak	0701.227.322.00.07					
GUZTIRA						15.490,00 €
Garapen Ekonomikoa Eskualde Agentzia	0102.227.322.00.11					
Hilero eginiko ordainketak Mankomunitateari						35.812,61 €
Debagoieneko Mankomunitateari Kapital						
Trasferentzia	0701.721.322.00.11					
Inbertsioen Finantzaketa						672,01 €
Merkatariei Diru Laguntza	0302.471.751.00.01					
Aretxarteri diru laguntza						3.600,00 €
Merkataritza Sustapena	0302.226.751.00.06					
GUZTIRA						5.500,00 €
GUZTIRA						119.512,59 €

Ondorengo taulan, besteak beste, 2012 urte bukaeran egin ziren kontratazio berriak agertzen dira, 2013ko beraien jarraipena eta 2014. urtean egitea espero diren berriak:

- 2013an aldi baterako kontratatu ziren hiru langabetuak peoi lanetarako 2014ko apirilera arte jarraituko dute lanean.
- Horrez gain, bi teknikarien lanpostuak sortzea aurreikusten da: berdintasun eta partaidetzarako teknikariak.
- Eta amaitzeko, aldi baterako beste bi langabetu kontratatzea aurreikusten da peoi lanetarako.
- Aurrera begira beharren arabera sortzen direnak.

Hortaz, guztira, 2014an aurreikusten ditugun diru laguntzak kontuan izan gabe, Udalak **304.588,86 euroko** aurrekontua izango luke kontratazio zuzenen partidetan.

2012. urtean udaletik langabetuei zuzenduriko ondorengo ikastaroak antolatu genituen edo antolatzen lagundu genuen:

- Etxez-etxeko Zerbitzua: Emakume langabetu atzerritarrei zuzenduta.
- Lanbide.net: webgunearen erabilpena sustatzeko asmoz eta langabezia dauden herritarrei Internet bidez lana bilatzeko gakoak eman nahian Lanbideko web orria erabiltzen jakiteko ikastaroa.
- Sukaldaritza Ikastaroa: pintxoak, plater konbinatuak, bokadiloak, sandwichak, etab prestatzen ikasteko. Ikastaro honen barruan elikagaiak manipulatzeko txartela eskuratzeko aukera eman zen, ostalaritzan lan egiteko oinarrizko euskara ezagutza landu zen, etab.

2013. urtean udalak Debagoieneko enplegu planaren barruan langabetuei zuzenduriko ondorengo ikastaroak antolatu ziren:

- Bizikleta elektrikoen teknikaria
- Programa informatiboak eraikuntza arloan
- Energia berriztagarrien eraginkortasuna
- Neuroendekapenezko gaixotasunetan zaintza
- Sukaldari-laguntzailea
- Gazteak prest lanerako (igeltseritza, arotzeria...)

Autoenplegurako sentsibilizazio saioak.

Tailerrak ekintzaile berrientzat – enpresa txikientzat:

- Datu babesaren ezarpena enpresa txikietan
- Sare sozialak eta mikroenpresa
- Kudeaketaren kontrola mikroenpresan
- Langile autonomoentzako tributazioa

6.1 2012KO MEMORIA

IZENA	PARTIDA ZENBAKIA	IRAUPENA	JARDUNALDIA	KREDITUA 2012	G. SEGURANTZA	GUZTIRA
Kontratazio Zuzenak	0701.131.121.00.01				0701.160.121.00.01	
Peoia	1	hilabete	osoa	1.774 €	581 €	2.355 €
Peoia	1	hilabete	osoa	1.774 €	581 €	2.355 €
Peoia (enterradorea)	1	2 hilabete	osoa	4.321 €	1.415 €	5.736 €
Peoia (enterradorea)	1	3 hilabete	osoa	6.063 €	1.986 €	8.049 €
Peoia	1	2 hilabete	osoa	4.488 €	1.470 €	5.958 €
Peoia	1	hile erdi	osoa	1.206 €	395 €	1.601 €
Aparejadorea	1	urte osoa	osoa	38.821 €	12.462 €	51.283 €
Lan teknikaria	1	urtarriletik maiatzera	osoa	13.356 €	4.374 €	17.729 €
Lan teknikaria	1	irailean hasi	erdia	6.264 €	2.051 €	8.315 €
Hirigintzako Administraria	1	azaroan hasi	erdia	1.450 €	475 €	1.925 €
Kontratazio Zuzenak (ARKUPE)	0701.131.451.10.01				0701.160.451.10.01	
Harreragilea	1	azaroan hasi	osoa	3.483 €	1.141 €	4.624 €
Harreragilea	1	azaroan hasi	erdia	1.742 €	570 €	2.312 €
Harreragilea	1	azaroan hasi	erdia	1.742 €	570 €	2.312 €
Kontratazio Zuzenak (LIBURUTEGIA)	0701.131.451.30.01				0701.160.451.30.01	
Liburutegiko laguntzailea	1	azaroan hasi	erdia	1.899 €	622 €	2.520 €
Liburutegiko laguntzailea	1	urte osoa	erdia	16.032 €	5.251 €	21.283 €
GUZTIRA KONTRATAZIO ZUZENAK	15					138.357 €
Diru Laguntza Arrunta Enpresa Ekimenetarako	0102.471.322.00.01	(1000€ ko partida)				0 €
GUZTIRA						0 €
Kapital Diru Laguntza Enpresa Ekimenetarako	0102.771.322.00.01					17.908 €
Obekuri Harategia S.L.						6.600 €
Bizitza Zentruak						275 €
Tinta Beltza						5.033 €
Amaia Ume Denda						6.000 €
Autoenplegua, Lanerako Prestakuntza Ikastaroak	0701.227.322.00.07					6.961 €
Hiztegia Euskaltegian	Sukaldaritza Ikastaroa					560 €
Zabaltzen Elkartea (koordinazioa eta kudeaketa)	Sukaldaritza Ikastaroa					5.863 €
Elikagaien Manipulazio Ikastaroa	Sukaldaritza Ikastaroa					538 €
Garapen Ekonomikoa Eskualde Agentzia	0102.227.322.00.11					27.887 €
Hilero eginiko ordainketak Mankomunitateari						27.887 €
Debagoieneko Mankomunitateari Kapital Trasferentzia	0701.721.322.00.11					611 €
Inbertsioen Finantzaketa						611 €
Merkatariei Diru Laguntza	0302.471.751.00.01					1.250 €
Aretxarteri dirulaguntza	50%					1.250 €
Merkataritza Sustapena	0302.226.751.00.06					1.210 €
Ixadebalde ferixan zur jokoen kontratazioa						1.210 €
GUZTIRA						55.826 €

6.2 2013KO MEMORIA

IZENA	PARTIDA ZENBAKIA	IRAUPENA	JARDUNALDIA	KREDITUA 2013	G. SEGURANTZA	GUZTIRA
Kontratazio Zuzenak	0701.131.121.00.01				0701.160.121.00.01	
Peoia	1	6 hilabete	osoa	11.860 €	3.740 €	15.600 €
Peoia	1	13/06/01-13/07/21	osoa	2.276 €	975 €	3.250 €
Peoia	1	13/07/22-13/11/30	osoa	8.735 €	1.767 €	10.502 €
Peoia	3	13/11/15-13/12/31 13/05/20-tik	osoa	8.160 €	2.673 €	10.833 €
Hirigintzako teknikaria	1	aurrera	osoa	21.587 €	6.812 €	28.399 €
Lan teknikaria	1	urte osoa	erdia	22.517 €	7.453 €	29.971 €
Hirigintzako Administraria	1	urte osoa	erdia	17.612 €	5.772 €	23.384 €
Kontratazio Zuzenak (ARKUPE)	0701.131.451.10.01				0701.160.451.10.01	
Harreragilea	1	urte osoa	osoa	26.122 €	8.385 €	34.508 €
Harreragilea	1	urte osoa	erdia	20.364 €	6.663 €	27.027 €
Harreragilea	1	urte osoa	erdia	16.011 €	5.281 €	21.291 €
Kontratazio Zuzenak (LIBURUTEGIA)	0701.131.451.30.01				0701.160.451.30.01	
Liburutegiko laguntzailea	2	urte osoa	erdia	28.957 €	9.585 €	38.542 €
GUZTIRA KONTRATAZIO ZUZENAK	14					243.307 €
Diru Laguntza Arrunta Enpresa Ekimenetarako	0102.471.322.00.01					2.000 €
Inversiones Meribep, S.L.						2.000 €
Kapital Diru Laguntza Enpresa Ekimenetarako	0102.771.322.00.01					6.000 €
Inversiones Meribep, S.L.						6.000 €
Autoenplegua, Lanerako Prestakuntza Ikastaroak	0701.227.322.00.07					15.000 €
Arreta soziosanitarioa etxean						15.000 €

IZENA	PARTIDA ZENBAKIA	IRAUPENA	JARDUNALDIA	KREDITUA 2013	G. SEGURANTZA	GUZTIRA
Garapen Ekonomikoa Eskualde Agentzia	0102.227.322.00.11					25.549 €
Hilero eginiko ordainketak Mankomunitateari						25.549 €
Debagoieneko Mankomunitateari Kapital Trasf.	0701.721.322.00.11					636 €
Inbertsioen finantzaketa						636 €
Debagoieneko Enplegu Plana - P.Espezializatua						
Bizikleta elektrikoen teknikaria						
Programa informatikoak eraikuntza arloan						
Energia berriztagarrien eraginkortasuna						
Neuroendekapenezko gaixotasunetan zaintza						
Sukaldari-laguntzailea						
Gazteak prest lanerako						
Autoenplegurako Sentsibilizazio Saioak						
Autoenplegurako sentsibilizazio saioak						
Tailerrak Ekintzaile Berrientzat/Enpresa Txikientzat						
Datu babesaren ezarpena enpresa txikietan						
Sare sozialak eta mikroenpresa						
Kudeaketaren kontrola mikroenpresan						
Langile autonomoentzako tributazioa						
Merkatariei Diru Laguntza	0302.471.751.00.01					2.500 €
Aretxarteri dirulaguntza						2.500 €
Merkataritza Sustapena	0302.226.751.00.06					5.598 €
166 ilusio, 166 opari, herrixa dantzan!						5.598 €
GUZTIRA						57.284 €